

SOCIALISTAS DE IRUN | PSE-EE
IRUNGO SOZIALISTAK | PSOE

BAIETZ, IRUN 

IRUN, SIN DUDA



VOTA
BOZKATU

JOSÉ
ANTONIO
SANTANO

ALKATEA / ALCALDE

Programa

ELECTORAL 2019

Betetzea, hitzaren balioa.

José Antonio Santano



www.santano.net

Hauteskunde garai honetan, zeina aurten bereziki luzea izaten ari den, hau irakurtzera gelditu bazara, lelo edo eslogan, diskurtso eta promesa eraso gaingaituta, IRUN interesatzen zaizulako da. Azken urte hauetan garatu dugun hiri proiektuan konfiantza duzulako da, eta jakin nahi duzulako zeintzuk izango diren gure etorkizuneko apustuak, Irun hiri atsegina eta bizia izateko, eta lan egiteko leku perfektua izaten jarraitzeko.

Hauteskunde egun hauetan promesak, helburuak eta nahiak entzungo ditugu, baina hitz gakoa BETETZEA da, eta hitz hori Irunen guk harro ahoskatzen dugu. Udalaren ardura izan dugun urte hauetan, hiri hau toki hobea izan dadin ahalegindu gara, hiritarren indar ikaragarriaren laguntzaz.

Promesak betetzearen balioa, berriro ere alkategai gisa aurkezteko ohorea izatea guk etorkizunerako ditugun planak kontatzeko, baina betetako konpromisoaren egiaztagiria aurkeztuz, hori da bermea.

Horregatik, badakit berriro ere irundar gehienek bozka jasoko dugula, berriro ere zuen konfiantza eta zuen ilusioa izango ditugula jarraitzeko.

Zeren eta, egun hauetan entzungo ditugun gauzak asko izango badira ere, guk argi baitauekagu guztiaren gainetik **GUK IRUN SENTITZEN DUGULA, ZALANTZARIK GABE.**

Hirikide agurgarria

Gure konpromisoa: IRUN, ZALANTZARIK GABE

Irun, bihotzean. Oso maite dugu gure Hiria eta gure motibazioa handiena da lan egitea egunetik egunera hobea izan dadin. Hori da gure konpromiso bakarra: Irun eta irundarrak.

Harro gaude gure **bizitza osoa Irunen** egin dezakegulako eta berarekin batera hazten goazelako. Elkarrekin, bizitzaren etapa guztiak zeharkatuz, hiria eta hiritarrok indartsuago egiten gara.

Gustuko dugu Irun **bizi eta lan egiteko moduko hiria** izatea. Gazteenentzako aukerak dituen hiria, baina baita hiri bat non gure nagusiak ere zaintzen ditugun. Irun **solidarioa eta askotarikoa**, mugaz gaindikoa definizioz, dituen baloreek guztiok helburu berberak izateko lan egitera bultzatzen gaitzuten. Irun atsegina, **auzoetan** pentsatzen duena eta **garapen iraunkorraren** aldeko apustua egiten duena. Eta, gainera, anbizio handiko hiria eta erronkei beldurrik gabekoa, beti abangoardian eta proiektu berritzaile eta eraldatzaileei aurre egiten badakiena eta hori egitea gustatzen zaiona. Bere **iragana** zaintzen duen hiria, baina indarrez zapalduz doana, **etorkizunari** ilusioz begiratuz.

Hori bakarrik lortzen da **hiri proiektu sendo, arduratsu eta berritzaile baten bitartez**, gizartearen etengabeko aldaketa eta eskakizunenetara egokitzen jakinda. Eta garrantzitsuena, argi eta garbi izanda proiektu honen protagonistak beti irundarrak direla eta izango direla.

7 konpromiso ditugu IRUN, ZALANTZARIK GABE hobetzen jarraitzeko.

- 1.-Pertsonentzako proiektuekin
- 2.-Konpromisoarekin eta elkartasunarekin
- 3.-Bizitza kalitate hobearekin
- 4.-Aukera gehiago eta hobeeekin
- 5.-Erantzukizunez eta iraunkortasunez
- 6.-Etorkizunerako ilusioekin
- 7.-Egunetik egunera hobek diren auzoekin

IRUNEN JAIOTZEN GARA

Irún da jaiotzen ikusi gaituen edo bere etxean hartu gaituen hiria. Gure lehenengo oroitzapenak bere historiarekin nahasten dira: txokolate usaina, opila San Martzialen, lehen besakadak Artalekun, Sarjiako arrain urmaelaren inguruan jolasean, hondartzara joateko busaren zain igarotako beroa,... Oroitzapen zoriontsuak eta etorriko diren oroitzapen beroak. Horregatik, gure helburua da irundarren egunerokotasuna lehen unetik, jaiotzen direnetik, hobetzea. Umezaroa da bizitzako etaparik garrantzitsuenetakoa, garrantzitsuena ez bada, eta bermatu egin behar dugu gure lehen urteak Irúnen zoriontsu eta aske bizitzeko eskubidea.

Gainera, orain dela hamarkada batzuk galdu genuen eskubide bat berreskuratu nahi genuke: Irúnen jaiotzeko pribilegioa edukitzea. Horretarako, konpromisoa hartzen dugu Eusko Jaurlaritzari Eskualdeko Ospitalea moldatzeko eskatzeko, **ama-haurrentzako zerbitzu** bat egon dadin.

1.-Irún, haurren laguna den hiria

Aurrera egin nahi dugu haurrei eskainitako zerbitzuak hobetuko dituen Irún baterantz, hiriko espazioa txikiengana ere pentsatuz diseinatuz.

Unicefek eratauta duen **Haurren Lagunak diren Hirien** sarean sartzea planteatzen dugu, haurren eskubide guztiak betetzen direla eta Udalak hartzen dituen erabaki guztiak euren bizitza kalitatea hobetzera zuzentzen direla bermatzeko.

Illo horretan, **Haurtzaroren Arreta Plan** bat egin nahi dugu, kontrako egoerei aurre egin eta gizartearen laguntza gehiago behar duten adingabeengan pentsatuz.

Irún **Hiri Jostagarria** izatearen alde egiten dugu, hiriaz segurtasunez disfrutatzeko eskubidea bermatzeko, sedentarismoaren eta horrek dakartzan osasun arazoaren aurka borrokatuz. Horretarako, gure haur parkeak eta jolasguneak hobetzen jarraitzea planteatzen dugu, **Pinarrekoa eta Sarjiakoa** berrituz. Horrez gain, **Larreandin haur parke berri bat** egin nahi dugu, garai batean azpiestazio elektrikoa zegoen lursailean.

Illo horretan bertan, bizitzeko ohitura osasungarriak sortzeko bidean, **sentsibilizazio** kanpainak egin nahi ditugu **kirola egitearen onurei buruz**.

Haurtxoek sare ona daukagu, eta hori zabalitzen jarraitu nahi dugu. San Migelen gunerik berri bat irekiz, 4-11 urte bitarteko neska-mutikoek aisialdi aktibo, sortzaile, parte hartzaile eta osasungarri batez disfrutatu ahal izan dezaten.

2.-Irun familian

Uste dugu Irun leku ezin hobea dela haurrek eta familiek elkarrekin gozatu eta garatu ahal izateko.

Horregatik, **familiantzako aisialdirako espazio** bat egin nahi dugu **San Migel-Anakan, jolastokiekin eta estalitako jolaserako igerilekuekin**. Familiantzako jolaserako gune bat prestatuz, irundar familien gozamina bultzatzeko eta, gainera, aisialdira zuzendutako udal instalazioak gehitzeko.

Familia eta Lagun programa bultzatu nahi dugu. Programa horren bitartez aisialdia familian disfrutatzea bultzatu nahi da, sormen, dibertsio eta kulturako hainbat ekintzaren bitartez (ur kirolak, mendi irteerak, yoga, familychef, paseoak txirringan...).

Gure programa gogokoenetako bat **Jirabira** da, zeinean bat egiten baitute familiek, entretenimenduak eta gure parkeez gozatzeak. Hori garatzen eta beste leku eta data batzuetara hedatzen jarraituko dugu.

Badakigu familiek duten arazo nagusietako bat lana eta familia kontziliatzea dela. Horregatik, oportretan **udaleku irekiko** programak egitea planteatzen dugu.

3.-Etorkizuneko irundarrak hezten

Hiria garen heinean, gure betebeharra da txikienei ozen amets egiten erakustea, eta errespetu, berdintasun eta askatasun balioekin egitea. Gainera, beharrezkoa da beraien ere bizitza publikoaren erabakietan parte hartzea, eta, horregatik, **haurren parte hartzea** bultzatuko dugu.

Gure iritziz, horretan hasteko modurik onena da Udalak nola funtzionatzen duen ezagutu dezaten, eta, horretarako, **eskolen bisitak** antolatuko ditugu, udalerrian hartzen diren erabakiek eurentzat beraienez duten garrantzia ulertu dezaten.

Funtsezkoa da **zibismo eta heziketa kanpainak** areagotzea. Ikastetxeetan gizonen eta emakumeen arteko berdintasun programak hobetu behar ditugu, baita adikzioak prebenitzekoak ere.

Arreta berezia jarriko diogu **sare sozialak erabiltzeko** prestakuntza hobetzeari, baita **Interneten erabilerari lotutako sortzen ari diren adikzio berriei** ere. Konbentziturata gaude mundu digitalak aukera mugagabeak eskaintzen dituela, baina hezi egin behar da, bere arriskuak ezagutzeko. Arlo horretan, **Adikzio Plan** berri bat garatu nahi dugu, gazteenek aurre egin beharreko arriskuak ahal den heinean prebenitzeko.

Kale hezitzaileen programa ere zabaldu eta hobetuko dugu. Adin horietan egin behar dira ahaleginak garapen egokia sustatzeko, batez ere arrisku egoeran dauden adingabeei dagokienez.

IRUNEN HAZTEN GARA

Irun irundarrak hazten diren erritmoan hazten da. Gure hiria bertako hiritarren isla zehatza da, dinamikoa eta bizia. Irun da bizitzeko eta lan egiteko gustatzen zaigun hiria, non bizitza proiektu bat garatzeko aukerak dauden. Irun 62.000 iritzirekin osatzen da, hiritar beste iritzirekin, alegia. Irun denon artean markatzen dugun erritmoan hazten delako.

Hiri moduan, ilusio komun bakar bat garatu behar dugu, eta ez da ohikoa hirien garapen urbanistikoetan horrelakorik gertatzea. Via Irunez ari gara.

Hiri gisa hazten jarraitu nahi dugu, hiriago izan, baina modu jasangarrian. Gure seme-alabei aurkitu genuena baino Irun hobetoago bat utzi behar diegu herentzian, eta, horregatik, garapen jasangarria gure hazkundearen funtsezko faktorea izan behar da.

Aukeraz beteta haziko den Irun, beti indartsu izan diren sektore ekonomikoak beste batzuen ondoan bultzatuz, horien artean industria eta teknologia, beharrezkoa baita sektore horiek gure hirian haztea. Irun dibertsifikatua eta berritzailea.

Eta, batez ere, gazteengan pentsatuz haztea. Orainaren protagonistak, gure hirian etorkizuna izango dutela bermatzeko.

4.- Via Irun

Irunen datozen urteetarako dugun proiekturik zirrargarrienak Via Irun du izena. Gutxitan gertatzen da espazio handi bat edukitzea hiria hazteko eta hiriago egiteko. Gainera, jasangarritasunean oinarrituta, ez garelako ari hiria gehiago zabaltzeaz, baizik eta dagoeneko erabiltzen ez diren espazioak erabiltzeaz.

Orain dela 150 urte tren hirira iritsi zenetik **hiria birmoldatzeko** proiekturik handienaz hitz egiten ari gara. **Erdialdean 64.000 m²** ditugu erabilgarri, Irungo oraingo zein etorkizuneko biztanleen bizitza kalitatea hobetzeko. Hezkuntzarako aukera bat, jarduera ekonomiko berritzailea, ekintzailtza, mugikortasuna, etxebizitza eta merkataritza sustatzeko aukera bat.

Oso urrats garrantzitsuak egin ditugu azken urteotan, Via Irun erakundearteko hitzarmena sinatuz, izan ere, dagoeneko horren aldeko konpromisoa erakutsi dute Espainiako Gobernuak, Eusko Jurlaritzak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta, jakina, Irungo Udalak. Orain egin beharrezkoa da **espazio horretan zer egin nahi** dugun erabakitzen hastea.

Proiektu kolektiboa izan dadin nahi dugu, eta, horretarako, beharrezkoa da hiritarrek parte hartzea. Dagoeneko hasita gaude denon artean marrazten, eta hiritarrak kontuan hartzeko bide horretan jarraituko dugu espazioa kudeatzeko hurrengo pausoak ematen.

Prestakuntzak, ekintzaileek, enpresek eta ekipamenduek lekua izan dezaten nahi dugu, **komertzioarekin eta etxebizitzarekin batera**, hiritarrei egun osoan zehar bizitza eskaini ahal izateko. Eta gune horietan **jarduera berritzaileari** eta etorkizuneko jarduerari garrantzi handia emango dieten erabilera batzuk garatu behar dira, **prestakuntza unibertsitarioa eta profesionala** sustatzeko.

Halaber, **mugikortasuna hobetzea** eta orain arte trenbide ugariaren presentziagatik bananduta egon diren **auzoak elkartzea** nahi dugu. Oinezkoen eta txirrindularien mugikortasuna bultzatzea, Belaskoeneko, PIO XII.eko, San Migeleko eta Anakako konexioak sustatzea, berdegune handiak sortzea, eta geltoki bakar batean tren, topoa eta busak elkartzea.

Hori guztia, eta oraindik imajinatzeraz auzartzen ez garen askoz gehiago izango da Via Irun. Jarduketa estrategikoa Irunentzat, berritzailea, abangoardiakoa eta jasangarria.

5.- Hazkunde arduratsua

Irunek hazten jarraitu behar du, bere hiritarren beharrei erantzuteko, baina jasangarritasunetik abiatuta egin behar du. Hiri gisa, planteatzen dugun hazkundeak zeregin bikoitza betetzea: etxebizitza beharrak asetzea, eta espazio degradatuak edo erabiltzen ez direnak berreskuratzea. Hazkunde jasangarria, hiriago izateko.

Gainera, badakigu pertsona askok nolako arazo ekonomikoei egin behar dieten aurre, bereziki gazteek etxebizitza lortzeko. Horregatik, hirian **alokatzeko etxebizitzaren eskaintza** handia egotea nahi dugu. Badakigu Eusko Jaurlaritzaren eskumena dela, baina eskuz esku lan egingo dugu, Irunviari esker, zorrotzak izanez, eskari horri erantzuteko. Alokairu babestuko aukera berriak sustatuko ditugu Elitxun (Alardea/Alberto Larzabal), Oñaurren, Behobian eta San Migel-Anakan, besteak beste.

Iparralde Galen garapen berri baten alde egingo dugu. Irun hiri bizia da, bere beharrak aldatzen eta moldatzen dituena. Gaur egun, Iparralde Galek planteamendu berri bat behar du, hiriko ateetan duen kokapen estrategikoaren balioa agerian jartzeko, Ficoba bezalako gune berezi baten ondoan, eta hiriarekin inoiz baino lotura handiagoa duen ibai baten ertzean. Mugarte arte eta abangoardia proiektua integratuz, Oteiza tailer-etxeari lotutako espazioan.

Parte Zahar eraberritu eta dinamikoa edukitzeko lanean jarraituko dugu. Urdanibia plazaren berrurbanizazioa gure Parte Zaharraren biziberritze osoaren abiapuntua izan zen. Santa Elena eta Junkal kaleetan hobekuntzak egiten jarraituko dugu, eta **Panpinean eta Korrokoitzen** sustapen pribatuak behin betiko desblokeatzen, betiere hiriaren interesa defendatzeko, eta kaltetutako lagunei ostatu duinak bermatuz.

Arazo askoren ondoren, **San Migel-Anakako** espazio handia berreskuratze moduan gaude. **EkoAuzo** bat izatea planteatzen dugu, hiri proiektu ekologikoa, ingurumen inpaktua murrizteaz gain, bertako bizilagunei modu jasangarriagoan pentsatzen eta bizitzen laguntzeko.

Gure hiriko beste sarbideetako bat ere hobetuko dugu, Behobia, **Lastaolako** hirigintzako garapenarekin. Espazio eta ekipamendu berriak, etxebizitza publikoa eta GI-636 biribilgune berria, azkenean auzo osoa elkartzeko.

6.- Irun jasangarria

Gustuko dugu Irun, eta nahi dugu etorkizuneko irundarrek gure hiriaz eta bertako inguruneaz gozatzen jarraitzea. Horregatik, funtsezko rola ematen diogu **klima aldaketaren aurka borrokatze** dugun erantzukizunari, eta horretara egokitzeko eta bere ondorioak arintzeko bitartekoak ezartzeko. Egiten dugun garapen oro oinarri horrekin egin behar dugu.

Klima aldaketa ezin da zalantzan jarri, eta oso daitekeena da horren eragilea giza jarduerak sortutako Berotegi Efektuko Gasen igorpenak izatea. Nazioartean, xedea da gas horiek %30era murriztea 2030erako, eta %80ra 2050erako.

Sinesten dugu sareko lanean, eta Irun dagoeneko Klima eta energiaren aldeko alkateen Itunean (PAES) parte hartzen ari da, baina aliantza berriak bilatzen jarraitu behar dugu, jakitun izanik esparru lokalean jardun behar dugula maila globalean aldatu ahal izateko.

Horizonte zehatz eta argi bat eduki nahi dugu, udalerriek eta hiritarrek elkarrekin lan eginez. Horregatik, **Klima Irun 2050 Plana** garatu nahi dugu, nazioarteko akordioekin eta euskal zein foru estrategiekin bat eginda. Plan anbiziotsua, funtsezko helburu batekin: Irun hiri neutroa bihurtzea karbono igorpenei dagokienez, energia berriztagarriak erabiliz.

Gure hiriak eta planetak ezin dute gehiago itxaron errealitate horri aurre egiteko, eta, horregatik, zero minututik, hainbat **neurri** garatu nahi ditugu **klima aldaketaren aurka jarduteko**, udalerrien bizitzaren maila guztietan.

Horrenbestez, etxebizitzaren garapenari lotutako **hirigintzako irizpide berriak** ezarri nahi ditugu. Hiri antolamendurako plan berrien proposamenek kontuan hartu beharko dituzte klima aldaketaren proiezioak eta jokalekuak. Adibidez, esan dugun bezala, **San Migel-Anakan sustapen publikoko ekoauzo** bat sortzea proposatzen dugu, **karbono igorpenetan neutroa** izango dena.

Testuinguru horretan, Natura Eskola sortu nahi dugu, ingurumen hezkuntzarako eskola bat. Hiritar guztiak, eta batez ere eskola umeak, kontzientziatu daitezten jasangarriak izan behar dugula, eta hiriaren natur ondareari buruzko ezagutzak garatu ditzaten. Gai horren inguruko kontzientzia hartu behar dugu, ohiturak garatu, eta balioak sustatu behar ditugu.

Hirian **ibilgailu garbiak erabiltzea** sustatuko dugu. Horretarako, udal flotarako ibilgailu elektrikoak erosten jarraituko dugu, **ibilgailu elektrikoak kargatzeko sare** bat eratuko dugu, eta neurriak bultzatuko ditugu **ibilgailu elektrikoak erosi dituzten partikularrei edo enpresei hobariak** emateko (udal zergak gehiago murriztea, aparkatzeko kostu merkeagoak...).

Eraikin, instalazio eta zerbitzu publikoak ere jasangarritasun irizpideetara egokitu behar dira. Horregatik, planteatzen dugu ekipamendu publiko berriek %40 murriztu beharko dituztela kontsumo energetikoak. Gainera, dagoeneko existitzen direnetan, **estalki jasangarriak** jarriko dira, eraikinen portaera energetikoa eta ingurunearen baldintza mikroklimatikoak hobetzeko. Janari zerbitzua duten udal zerbitzuetan (egoitza, etxez etxeko laguntza eta haur eskola), **bio elikagaiak eta garaiko eta hurbileko produktuak** prestatzea eta banatzea planteatzen da.

Eraikin, instalazio eta zerbitzu publikoak ere jasangarritasun irizpideetara egokitu behar dira.

Horregatik, planteatzen dugu ekipamendu publiko berriek %40 murriztu beharko dituztela kontsumo energetikoak. Gainera, dagoeneko existitzen direnetan, estalki jasangarriak jarriko dira, eraikinen portaera energetikoa eta ingurunearen baldintza mikroklimatikoak hobetzeko. Janari zerbitzua duten udal zerbitzuetan (egoitza, etxez etxeko laguntza eta haur eskola), bio elikagaiak eta garaiko eta hurbileko produktuak prestatzea eta banatzea planteatzen da.

Eraikin eta ekipamendu pribatuak ere bat egin behar dute klima aldaketaren aurkako borrokarekin. **Efizientzia energetikoa, etxebizitzak isolatzea eta estalki** jasangarriak jartzea bezalako neurriak ezinbestekoak dira. Horretarako, Udalak eragile aktiboa izan behar du, neurri horiek hartzen laguntzeko. Araudi lagungarri bat egitea planteatzen dugu, eta **aholkularitza zerbitzua eta laguntza ekonomikoak** eskaintzea.

Birziklapenaren portzentajea handitzen jarraitu behar dugu. Bosgarren edukiontzia, hau da, materia organikoarenak, erakutsi du baliagarria dela birziklapena handitzeko. **2024rako birziklapena %60ra** iristea planteatzen dugu. Eta, sentsibilizazio kanpainekin jarraitzeaz gain, **edukiontzia berritzeko plan** bat egin nahi dugu, errazago erabiltzeko eta kaleen itxura hobetzeko.

Kaleak garbitzeko makineria guztia ere elektrikoa izatea nahi dugu, kutsadura akustikoa murrizteko.

7.-Irun, aukeren hiria

Hiri moduan egongo den hazkundera nahitaez garapen ekonomikoari lotuta joan behar da. Bertako jarduera bultzatuko duen eredu bat, bizitzeko eta lan egiteko hiria izaten jarrai dezagun. Eredu bat, esan dugunez, jasangarria izango dena.

Irunentzat ez da erraza izan, baina zailtasunak gainditzen ohituta dagoen hiria da; jakin izan du berrasmatzen eta bere ekonomia dibertsifikatzen. Behin eta berriro aukerak garatu izan ditu, eta horrek Irun inbertsioetarako eta negozioetarako hiri erakargarria izatea ekarri du. Muga ondoan dagoen hiria, berezia eta azpiegiturak, eta enpresa, ekonomia eta hezkuntza sarea duena, sendoa eta finkatua.

Uste dugu ekonomiak eragin txikiagoa izan behar duela ingurumenean eta baliabide naturalen gainean. Horregatik, ekonomia zirkularren aldeko apustua egiten dugu, jarduera ekonomikoaren CO2 igorpenak murrizteko bitarteko gisa. Baliabide naturalen erabilera aurrezterakoan, eragina murriztu eta produktu eta zerbitzuen diseinu ekologikoa eta zaharkitzearen aurkako borroka sustatzen ditugu eta berrerabilpena eta birziklatzea bultzatzen ditugu, baliabideak eta lehengaiak babesteko.

Bidasoa Biziriken bitartez, plataforma bat sortu nahi dugu **enpresa berritzaile berriak sortzea** bultzatzeko, ekonomia zirkularraren ezagutzak eta abantailak hedatu eta partekatzea ahalbidetuz.

“Irun Ekintzan” garapen ekonomiko eta enpleguaren aldeko Akordioaren bitartez, asmoa dugu **berrikuntza finantzatzeko era berriak** sustatzeko, klima aldaketaren aurka borrokatzeko helburuarekin, enpresa, unibertsitate eta ikastetxeentzako klima aldaketari buruzko laguntza deialdi lehiakorrek erabilita.

Gainera, Irungo merkataritza arlo berezi eta sendoari laguntzen jarraituko dugu. Hori, hiritarren laguntzarekin egin behar dugu, erosketak bertako saltokietan egiten baditugu, saltokiak ez direlako itxiko. Merkatarien noizbehinkako eskaintzak eta udal jarduerak uztartzeko, zonaldeko **Familiarekin erosi** proiektua jarriko dugu martxan. Jai giroko asteburua familian gozatu eta erosteko.

Halaber, **merkataritzarekin lotutako laguntza berriak** gauzatzeko ditugu, euren profesionaltasuna indartzeko (salmentei buruzko prestakuntza tailerrak, komunikazio teknikak), euren irudiaren hobekuntza (erakusleihen apainketa, packaginga), Interneten (merkataritza elektronikoa) eta sare sozialetan (Community managers, diseinatzaileak, marketin digitala) duten presentzia handitzeko eta baita frantsesaren ezagutza handitzeko ere. Gure merkataritza garai berrietara egokitzeko eta kaleetan eta sareetan lehiakorra izan dadin.

Enpresa gazte berritzaileak sortzeko finantzaketa formula berriak garatzeko ditugu. Iraunkortasunarekin eta ingurumenarekin lotutako proiektuak bilatuz, eta baliabide propioak eta ekonomia zirkularraren inguruan dinamika berriak sustatuz. Made in Irun talentuaren aldeko apustua eginez

Eraginkorrak diren laguntzak ugaritu nahi ditugu. Lokalen eta pabiloien alokairuak finantzatzeko K-Biziak programa berriarekin, jarduera ekonomiko berria dutenei, enpresa txikiei eta autonomoei laguntzeko.

Azken urteotan, enpresentzako lurzorua garatzeko era berri bati ekin diogu, erabiltzen ez diren pabiloiak edo lurzoruak berreskuratuz eta ekonomiaren behar berrietara egokituz. Hori da Belaskoenea, Anaka eta Bentak auzoetako inguru industrialetan egingo duguna eta, horretarako, Industriaidearekin elkarlanean jardungo dugu.

Trenbide gunea, Via Irun proiektua, izan behar da berrikuntza, diseinua eta teknologiaren aldeko apustua egiten duten hemengo eta kanpoko enpresei eskainitako lurzorua garatzeko aukera. Irunek apustu argia egin behar du etorkizuneko esparru horien alde, Foru Aldundiarekin eta Eusko Jaurlaritzarekin batera.

8.- Irun gazteagoa

Irun gazteei hezteko, ondo pasatzeko, garatzeko eta emantzipatzeko aukera ematen dien hiria da.

Institutuak, goi mailako ikastetxeak eta baita unibertsitatea ere erreferente garbia dira gure inguruan. **Via Irunen garapenak** udalerriko prestakuntza eskaintza zabaltea ahalbidetuko du, berrikuntzarekin batuta.

Gainera, prestakuntza eskaintza sustatzen jarraituko dugu Bidasoa Biziriketik, enplegua lortzeko **prestatu eta birziklatu** beharra duten gazteei laguntzeko eta babes emateko.

Gazteen zerbitzua bultzatu nahi dugu **Gazteartean Gunearen** bitartez. CBAren handitzean, orain dagoen arreta zerbitzua berregituratuko dugu, bitartekari izan eta gazteekin konektatuko duten erreferentziazko pertsonen baliatzeke.

Gazteen programak eta zerbitzuak handitzen jarraitu nahi dugu, eta, horretarako, **Martindoze-nea** 18 eta 25 urte bitarteko **gazteentzako erreferentziazko** gune izan dadin nahi dugu.

Gurasoen etxetik irten nahi duten gazteei erantzuna eman nahi diegu eta horretarako **“Emigrazio Eraikinean”** alokairuzko apartamentuak eraikitzea eta alokairua laguntzeko **linea** planteatzen ditugu.

Programa berritzailea jarri nahi dugu abian, gazte askok duten etxebizitza arazoa nagusi askok duten bakardade arazoarekin uztartzeko. **Nagusiek eta gazteek etxebizitza parteka** dezatela nahi dugu.

9. Irun parte hartzailea, hurbilekoa eta gardena

Irun ezin da ulertu eta gutxiago oraindik garatzen jarraitu hiritarren indar handiagatik ez bada, horrek hiri hobea egiten baitu. Oinarrizkoa da hiritarrek Udalaren egitekoetan parte hartzea, ohiko eta txikienetatik etorkizuneko proiektu handienetaraino. Entzute aktiboa, etengabeko harremana, parte hartzeko eta erabakitzeke hainbat bide, gardentasuna eta kontuak ematea, horiek dira udalaren egunerokoa blaitzen duten zeharkako lerro eta printzipio handiak.

Lana egiteke era horrekin jarraituko dugu, gure hiriarentzako garrantzia berezi duten proiektu guztietan hiritarrentzako **parte hartzeko bideak** irekiz eta “Alkatea auzoetan” programa eta aurrekontu parte hartzaileak mantenduz.

Alpamen berezia merezi du **gazteen parte hartzeak**. Parte hartzeko eredu berriak landuko ditugu, gazteak udalaren gazte politiketan parte hartzen aktiboak eta sortzaileak izan daitezten.

Palmera Monteron izandako arrakastari jarraipena emanda, **elkarteentzako hotel berria** jarri nahi dugu **Iparralde etorbidean**. Gure elkarten bizitza aktiborako gune berri bat, era askotako

erakundeei utzitako lokalak izatea ahalbidetuko diena euren proiektuak aurrera ateratzeko eta jardueratarako erabilera anitzeko areto berriak.

Auzo elkarteekin elkarlanean jarraituko dugu, baliabide gehiago eta lokal hobeak eskainita. Paper oso berezia jokatuko du **“Emigrazio Eraikinak”**, han instalazio berriak izango baitira San Migel auzoarentzako.

Gainera, Larreaundik lokal berria izango du auzoarentzako, guztientzako, txikienetatik handienetara, jarduerak antolatu ahal izateko.

Udal zerbitzu guztiak hurbildu nahi ditugu, HAZari protagonismo handiagoa emanda, eta, horretarako, San Juan plazan **udalaren eraikin berria** eraikitzea planteatzen dugu.

Gainera, hiritarrei arreta azkarrago ematearen erronkarekin jarraituko dugu, “Irun Txartelarekin” on-line tramitazioa erraztuko dugu Udaletxean. **“24 orduz zabalik eta paperik gabeko udala”** izatea lortuko dugu.

Badakigu hiritarrentzako garrantzia berezia duela euren eskubideak eta euren udala nola kudeatzen den ezagutzea eta, horregatik, udal sailtako **Zerbitzu Gutunak** ezartzen jarraituko dugu.

Gainera, gure **Gardentasun Ataria** hobetzen jarraituko dugu, udal jarduera osoaren berri gure hiritarrei emateko tresna gisa. Gobernantza alorreko Europako Bikaintasun Zigiluaren (ELoGE) proiektuan parte hartzen jarraituko dugu, helburua “kristalezko hormak” dituen Udala izanik, eta hori neurtzeko tresna gisa.

IRUN BIZI DUGU

Oso harro gaude bizi garen hiriarekin. Irun da jaio garen hiria edo bertara etortzea erabaki duguna, bertan hazi gara eta bertan jarraitu nahi dugu bizitzen. Horregatik, gure helburua da guztion artean hobetzen jarraitzea. Generoa, adina edo auzoa gorabehera, Irun bizitzeko gustatzen zaigun hiria izaten jarraitzea nahi dugu.

Bera eraldatzen duten proiektu handietan pentsatzen duen hiria baina baita bere kale, plaza eta txoko bakoitzaren zaintzan eta babesean ere. Hiri espazioaren kalitatearen alde lan egiten duen hiria.

Hiri elebidun eta askotarikoa, euskararen erabilera zaindu eta sustatzen duena. Gainera, hezkuntza mailan frantsesa berreskuratu nahi dugu, gure hirian enplegua izateko eta Bidasoa bestaldean lan egiteko aukera emango digun hizkuntza gisa.

Hiri anitza eta inklusiboa, pertsona guztiengan pentsatzen duena eta, bereziki, ahulenengan, horiek laguntza handiagoa behar baitute euren bizitza proiektua berdintasunean gauzatzeko.

Mugikortasun jasangarriaren alde, hirigintza arduratsuaren alde eta inguru seguru eta errespetagarriaren aldeko apustua egiten duen hiria. Azken batean, Irun bizitza kalitate handiaren sinonimo gisa.

10,- Irun, hiri adeitsuaren eredia

Irun, bertan bizitzea gustatzen zaigun hiria izaten jarrai dezan nahi dugu. Pertsonentzako pentsatutako hiria, bere hiri kalitatea zaintzen duen, kohesionatua erdigunearen eta auzoen artean eta era jasangarrian mugitzen dena. Hiri dinamikoa, pertsonentzako espazio berriak sortzen dituena, aukera ekonomiko berriak eta hori beti jasangarritasuna lehenetsiz. Badakigu gizarte gisa dugun erronka handienetako bat klima aldaketaren aurkako borroka dela, gu bertara egokitzea eta nahi dugu gure hiri ereduak horretan bere ekarpena egitea.

Uste dugu espazio publikoak pertsona guztien zerbitzura egon behar duela eta horretarako oinarrikoa da kalitatezkoa izatea. **Hiriko argi guztiak LED argiztapenarekin** ordezkatuko ditugu. Merkeagoa, jasangarriagoa, uniformeagoa eta segurtasun handiagoarekin.

Gainera, lanean jarraituko dugu gure hirian irisgarritasuna unibertsala izan dadin. Arkitektura oztopoak kentzeko kanpainekin jarraituko dugu, pribatuei laguntzak handituko dizkiegu, etxebizitzetarako eta ostalaritzako eta merkataritzako establezimenduetarako irisgarritasuna bermatzeko.

Espazio publikoa berreskuratzen eta balioan jartzen jarraitu nahi dugu. Azken urteotan, San Juan edo Parte Zaharra bezalako guneak berreskuratu ditugu hiriaren bizitzarako. Bide horren aldeko apustua egiten jarraitu behar da eta **Junkal kalearen eta plazatxoaren** inguruan esku hartze garrantzitsua gauzatzea planteatzen dugu. Junkal kalea ireki nahi dugu, tunelaren pasabidea handituz, merezi duen bezala, Junkaleko Elizaren ikuspegia izan dezagun Parte Zaharretik begiratuta.

Eta gure Bidasoa ibaia balioan jartzen jarraitu nahi dugu. **Behobia eta Azken Porturen arteko oinezkoen pasealekuaren eta bidegorriaren** lehen fasea bukatu dugu. Lanarekin jarraitu egin nahi dugu eta **Osinbiribilekin** lotu.

Gainera, gure parkeez eta hiriko gune berdeez gozatuz eta hedatuz jarraitu nahi dugu. **Soroxar-tako parkea berritu** nahi dugu eta **Gain Gainean-go hirugarren fasea** gauzatu, tontor gaineraino iritsiz eta gotorleku zaharraren hondakinak berreskuratuz.

Hiriak duen ondare natural handia zaindu eta hobetzen jarraitu nahi dugu, **Txingudi eta Olaberri-ko Plan Bereziak** garatuz.

Ezin dugu hiri adeitsuaz hitz egin ez badugu buruan mugikortasun jasangarria. Azken urteotan, asko izan dira norabide horretan egindako aurrerapausoak. Pertsona bere erabakien erdigunean jartzen duen hiria eta egunerokoan hobekuntza bilatzen ari dena. Horretarako, **Hiri Mugikortasun Jasangarriaren II.** Plana egingo dugu. Gainera, **genero ikuspegia** sartuz egingo dugu, Hiri Antolamenduko Plan Orokorrearekin egin zen bezala.

Oinezkoen mugikortasuna bultzatuz jarraitu nahi dugu. Azterlanek erakutsi digute hiriaren barruan egiten ditugun mugimendu gehienak oinez egiten ditugula. Izan ere, badakigu **oinez ibiltzeak** barne mugikortasuneko arazoak **konpontzen dituela**. Gure kaleak hobetzen jarraituko dugu, eskoletarako bideak gehituz eta oinezkoentzako lotune berriak sortuz.

Urrats garrantzitsuak eman ditugu bizikletaren erabilera handitzeko baina jarraitu egin behar dugu bultzatuz. **Bidegorrien sarearekin** jarraitu nahi dugu, Letxunborroko etorbidekoa Amute Ospitalekoarekin lotuta. Orain, gure hutsune handiena da inguruko udalerriekin dugun lotune falta. Halaber, Hendaiarekin lotzeko bidegorria Eusko Jaurlaritzak Plaiaunditik egitea nahi dugu.

Gainera, bizikleta edukitzea erraztu nahi dugu, eta, horretarako, **bizikletetarako aparkaleku estalia** egitea proposatzen dugu. Hirian zehar, guneak jarriko ditugu bizikletak **puntuak jartzeko eta garbitzeko**.

Gure hiriko garraio publikoa ikaragarri hobetu da azken urteotan. Gero eta gehiago dira garraio publikoan mugitzen diren irundarrak, zerbitzua handitu egin baitugu, 4. linea berriarekin eta Hendaiara egunero doanarekin. Gainera, jasangarritasunaren eredu gisa kokatzen gaituen urratsa eman dugu, 1. linea Euskadin guztiz elektrikoa den lehen linea baita. Aurrerapauso asko eman ditugu eta horrela egiten jarraitu nahi dugu. **Mugikortasun elektrikoaren aldeko apustuak** gure ezaugarrietako bat izaten jarraituko du. Hirian ibilgailu garbiak bultzatzen jarraituko dugu eta hurrengo **2. Linea** izango da, **Bentetakoa**. Udalaren ibilgailu elektrikoaren flota handituko dugu, kargatzeko guneen sarea instalatuko dugu eta neurriak bultzatuko ditugu ibilgailu elektrikoaren aldeko apustua egiten duten partikularrak eta enpresak saritzeko. **4. linea ere handitu** nahi dugu, Lapize eta Antzarango gune altuei zerbitzua emateko.

Gainera, hurrengo urteotan garraio publikoaren hobekuntzaz harago joan den mugarri bat bizi ahal izango dugu, **nazioarteko geltoki berria**, alegia. Hiria batuko duen geltokia. Abiadura Handia, Aldirietakoa, Topoa eta autobusak batzeaz gain, hiriaren iparraldea eta hegoaldea lotzeko baliagarri izango da. Espazio berria trenbide gunearen gainean.

Hiriaren sarreran eta irteeran gertatzen diren trafiko arazoak udalerria inguratzen duen **bide azpiegiturarik ez dagoelako** sortzen dira. Aldundiak historian zehar Irunean duen zorra hazten doa eta azken urteotan urratsen bat edo beste eman badugu ere, ez dira nahikoak. Aurki, Hego Ingurabidearen lehen faseko lanei helduko diegu, Oñaurretik Txenpereneak Euskal Herria etorbidearekin bat egiten duen lekurainoko tartean, baina ez da nahikoa.

Aldundia benetan inplikatu behar da gure errepideekin eta Irun inguratzen duten bideak hobe ditzan nahi dugu. Aldundiak bere konpromisoa osatu behar du **Hego Ingurabidearen bigarren fasearen eraikuntza** diruz lagunduta eta **egungo saihebidetara bitan banatzeko azterlana eginez, Kostorbeko sarreratik Mendelurako irteeraraino**, horrek ikaragarri lagunduko bailuke ilarak eta geldituak murrizten.

Eta borroka egiten jarraituko dugu ez gaitzeen bigarren mailako gipuzkoarrak izan, eta, horregatik, A-8an Bentak eta Behobia artean dagoen zatian **bidesaririk ez izatea** nahi dugu, Irungo biztanleentzat. Autobidearen doako alternatiba emango digun Hego Ingurabidea osatuta egon arte eskatuko dugu hori.

Badakigu hiriko zenbait gunetan hiritarrek aparkatzeko arazoak dituztela. Auzotarrengan pentsatuz burutu ditugu hainbat jarduera eta uste dugu hori dela arazoei aurre egiteko era eta gure hirian ibilgailuaren neurriko erabilera lortzeko era.

Belartzan 140 ibilgailuentzako tokia izango duen lurpeko aparkalekua egin nahi dugu, **alokairuan** eta Artia eta Arbeseko auzotarrentzako izango dena. Gainera, **Gazteluzar eta Bienabe Artian 41 ibilgailutarako tokia duen lur gaineko aparkalekua** handitu nahi dugu. Era berean, **Meakatik gertuen dagoen Arbeseko gunean** dagoen lursaillean, egoitza berriari eta kirol askotarako guneari eskainia, egun dauden aparkatzeko lekuak handituko dira. **Larreanduin aparkalekua** egitea ere nahi dugu. Eskolaurre zaharraren ondoko azpiestazio elektrikoaren lursailak ematen dizkigun aukerak erabili nahi ditugu, eraikin bat egiteko, kalearen arrasean aparkalekua eta goiko solairuan auzoarentzako gune soziala izango dituen. Eta Belaskoenea auzoan aparkalekua kudeatzeko formulak bilatuko ditugu.

Gainera, **egoiliarrentzako erreserbatutako aparkatzeko guneak** jartzeak izan dituen emaitza positiboak ikusita, hiriaren beste gune batzuetan ere hori egin nahi dugu.

11.- Euskara

Hiri elebidun batean bizitzeko pribilegioa dugu, dugun ondare altxor baliotsuenetako bat, euskara, zaintzeko hainbat programa egunero landuz.

Bere erabilera bultzatzen jarraitu nahi dugu, **Euskara sustatzeko Ekintza Planaren garapenaren** bitartez.

Euskararen erabileraren normalizazioan lan egiten jarraituko dugu, behar handiena dutenei arreta berezia emanez. Horregatik, lanik gabe dauden pertsoneri doako **euskarazko prestakuntza programekin** jarraituko dugu. Gainera, eskolaz kanpoko orduetan euskara indartu beharra duten haurren familientzako neurriak sustatzen jarraituko dugu.

Familiaola programa ere bultzatzen jarraituko dugu, oso emaitza onak eman baititu. Programa horrek familiak biltzen ditu euskaraz hainbat jarduera burutzeko eta, horrela, bere erabilera sustatzeko.

12. Irun, solidarioa eta askotarikoa

Irun konplexua da, anitza eta askotarikoa. Bere aniztasunean gustatzen zaigu. Horrela egin gaitu gure historiak, tradizioa eta etorkizuna batuz, zeudenak eta iritsi zirenak, gehien zeukatenak eta aukera gehien behar zutenak... eta beti pentsatuz nola egin guztiontzako Irun hobea.

Jakin badakigu aberasten gaituen errealitate hori konplexuagoa dela eta ahalegin eta baliabide gehiago behar dituela udalaren aldetik.

Horregatik, egoera ahulean dauden pertsoneri laguntzeko **programa sozioedukatiiboak** hobetu nahi ditugu, gizarte zerbitzuak era pertsonalizatuan, malguan eta euren beharretara egokituta hurbilduz.

Gainera, **larraldietako eta behar berezietako programak** indartuz jarraituko dugu, arreta handia jarriz familiarik egon ez dadin etxea galtzeko edo txirotasun energetikoko egoeran.

Uste dugu **kulturen arteko bitartekaritza programak** hobetu egin behar direla, elkarbizitza arazoak saihesten laguntzen baitute, eta ireki egoera zaugarrian dauden beste kolektibo batzuei, hala nola kalean lo egiten duten pertsoneri, gizarte bazterkeria jasaten duten pertsoneri edo buruko gaixotasunak dituzten pertsoneri.

Bertako Immigrazio Plana egin nahi dugu, gure udalerrian aniztasuna lantzeko.

Emakumeen gisan eta zeharkako eran pentsatzen duen hiria izaten jarraitu nahi dugu. Udalerritik gure dute onartuta **IV. Berdintasun Plana** eta Irun da horietako bat: ekintza ugari jarriko ditugu abian.

Gainera, askatasun sexualaren aldeko sentsibilizazio kanpainak handitu nahi ditugu.

Aniztasun funtzionala duten pertsonak hirian guztiz integratzea ziurtatu behar dugula ere uste dugu. Bizitza autonomia izateko eskubidea bermatu behar dugu eta, horregatik, Aldundiak **26 apartamentu eta eguneko zentroa** eraikitzea planteatzen dugu, Arbeseko etxebizitza gunearen barruan.

Era berean, pertsona horiek **gizartean eta lanean integratzeko** eskubidea dutela proposatzen dugu. Horregatik, Olaberriko Bailaran **Baseri Eskola** bat sortzea proposatzen dugu.

Gainera, eskubideen berdintasuna bermatzeko espazio publikoetako **seinaleak** egokitzea planteatzen dugu, guztiontzako ulertzeko modukoak izan daitezen, eta udal liburutegian **irakurketa errazeko gune** bat sortzea.

Elkartasuna bere zentzurik zabalenean ulertzen dugu. Hiria erreferente izan da **nazioarteko lankidetzan**, bai Udaletik eta baita mundu osoan zehar lanean diharduten hiriko GKEetara (ONG). Hiri erreferentea izaten jarraitu nahi dugu eta garatze bidean dauden herrialdeentzako **lankidetzako proiektuen diru laguntzak handituko ditugu**.

13.- Segurtasuna eta bizikidetzak

Ingurune atseginean, seguru nahiz errespetatuak sentiaraziko gaituen Irunen bizitza dugu gogoko. Horretarako, Ertzaintzarekin batera, Udaltzaingoak funtsezko egitekoa dauka. Herritarrek geroz eta gehiago eskatzen dute hurbileko udaltzaingoa izatea, irundarron premietara egokitutakoa. Horregatik, udaltzaingoaren gaur-gaurko ereduaren eraldatzea proposatzen dugu, eta **hurbilagoa** izan dadin beharrezko pausoak ematea.

Orain artean, eragile zibikoak primeran joan dira, baina guk aurrerapausoa eman, eta ingurune atseginen eskaera horri erantzun bat eman nahi diogu. **Gauzainaren irudia berreskuratu** nahi dugu, gauzez lan egin dezan. Iruditzen zaigu konfiantzazko ingurune bat sortzen, eta bizilagunen segurtasun sentipena hobetzen lagun dezakeela. Udaltzainekin eta larrialdietako zerbitzuekin elkarlanean arituko litzateke.

Gure ustez, ingurune atsegin hori bultzatzeko, ezinbestekoa da **udal ordenantzak** hirian ditugun egiazko errealitateetara **egokitzea**. Beharrezkoa da, halaber, gure kaleetan oinezkoen, bizikleten, patineteen bizikidetzak hobetzea; bai eta terrazen erabilerari dagokiona ere.

Guztion artean, Irun 30 eta pareko neurriak hartuta, istripuak asko murriztea lortu dugu, eta, hala, hiri seguruago bat izatea. Alabaina, bide horretan lanean jarraitu behar dugula iruditzen zaigu, eta ildo hori indartu, zero istripu helburua bete arte. Horrenbestez, **Bide Segurtasuneko Plan** bat abian jartzea proposatzen dugu.

Guztiok dugu ingurune seguru batean bizitzeko eskubidea; beraz, emaitza onak ematen ari diren programetan lanean jarraituko dugu (esaterako, **puntu beltzak desagerrarazteko** programa, zeina martxan dagoen 2011z gero).

Gainera, **indarkeria matxista jasan duten emakumeen arretarako zerbitzu espezifikoak** sortzea proposatzen dugu, premia handiena dutenengandik hurbilago egoteko.

14.- Irun eta animalien ongizatea

Gure hirian, geroz eta handiagoa da animaliekiko bizikidetzaren onurei buruzko kontzientzia handiagoaren seinale da hori, baina aldi berean, erantzukizun gehiago eskatzen zaizkie erakundeei zein herritarrei. Animaliak baldintza onetan biziko direla ziurtateko betebeharrak batzuk betetzea dakar, bai eta bestelako betebeharrak batzuk betetzea ere, ingurunea zainduko dela eta pertsonak errespetatuko direla bermatzeko.

Irunen, animalien zero hilketaren politika daramagu aurrera. Aisialdirako parkeak ere baditugu, eta kontzientziazio kanpainak egiten ditugu; dena den, iruditzen zaigu bizikidetzaren hobea izan dadin, eta animalien eskubideak hobetzeko, ezinbestekoa dela lanean jarraitzea.

Animalien babeserako leihatila edo bulego bat irekitzea proposatzen dugu. Han, animalien eskubideen eta jabeen erantzukizunen berri emango litzateke, kontzientziazio kanpainak egingo lirateke, eta edozein eratako zalantzak argitu.

Animaliak adoptatzeko joera ere sustatu nahiko genuke, izan abandonatutako animalien kasuan, izan pertsona batzuek animaliak adopzioan ematea erabaki dutelako. Beraz, **“Gure Lagun”** programa jarriko dugu martxan.

Horrekin lotuta, CES metodoaren bitartez, **katuen koloniak kontrolatzeko** protokoloa jarriko dugu abian.

Hori guztia egiteko, animalien **aldeko elkarrekin eta boluntarioekin** lankidetzan arituko gara. Gure hirian oso aktiboak dira, eta parte hartze handia daukate animalien ongizatearekin lotutako gaietan.

Bide beretik, **animaliak edukitzeari eta babesteari buruzko ordenantza berri** bat egingo dugu, hirian animalia bat edukitzeak dakartzan betebeharrak eta eskubide guztiak biltzeko.

IRUNEZ GOZATUZ

Gure etxea da Irún: bizitzeko zein lan egiteko aukeratu dugun tokia, gure ametsak betetzeko eta gure unerik dibertigarri eta jostagarrienak bizi nahi ditugun tokia. Gure hiriak ematen dizkigun aukera guztiez gozatu nahi dugu: ondare natural eta artistiko aberatsa, CBA, opera, musika banda, San Martzialak, kultur egitarau askotarikoa, Igande Sasoi, auzoko kirol kantxetako arratsalde eguzkitsuak, Urantzu pilotalekuaren burrunba pilotan ari direnean, Gal eta Artalekutik ateratzen diren adore oihuak... Unez bete genitzake orriak eta orriak: guztiak ere bereziak, Irunez gozatzeko aukera ematen digutenak.

Gainera, edozein adinetan ondo pasatzeko abaguneak eskaintzeaz harro dagoen hiria da gurea. Argi dugu ondo pasatzeko une onenetako bat lan jarduneko betebeharrak amaitu eta astialdia hasten denekoa dela. Geroz eta gehiago, nagusiak dira haien bizitzaren protagonistak, bai eta hiriaren protagonistak ere. Beraz, merezi dute hiriari bizitza osoan zehar eman dioten guztia orain Irunek beraien itzultzea.

Bestalde, hiriaz gozatu nahi dugu, baina osasuntsu egonda eta mediku arreta ona izanda. Horregatik, **Oñaurren hirugarren anbulatorioa** irekitzeko eskaera egingo diogu Eusko Jaurlaritzari.

15.- Pertsona nagusiak

Nagusiek bizitzako etapa horretaz modu aktibo eta autonomoan gozatzeko eskubidea dute, bai eta, premia izanez gero, arreta jasotzeko eskubidea ere.

Urteak daramatzagu Foru Aldundian **Arbesen Egoitza berria** eraikitzeko eskaera egiten. Eta halaxe jarraituko dugu, harik eta eskaera egia bihurtzen dela ikusten dugun arte.

Gainera, Arbesen bertan **tutoretzapeko 50 apartamentu berri** eraikitzea proposatzen dugu, laguntza handixeagoa behar izanagatik, modu independentean bizitzen jarraitu nahi dutenentzat.

Funtsezkoa da etxean bizitzen jarraitu nahi duten pertsona nagusi guztiek izatea horretarako aukera, beharrezkoak dituzten laguntza guztiak eskura dituztela. Horregatik, pertsona **nagusiei ematen zaien zuzeneko arreta** hobetu nahi dugu, **bereziki bakar-bakarrik daudenei zuzendutako programekin**. Gure gizartearen bilakaerak eta bakardadea prebenitzen egindako lanak erakusten digute gai horri heldu egin behar diogula. Auzoetan, komunitateetan eta atarietan **plan berezi** bat garatuko dugu, guztion artean lan egiteko, **bakarrik bizi diren pertsona nagusiei** lagunduz. Udalerrri mailan ekintza zehatzak diseinatuko ditugu, esate baterako, familiako baliabiderik izan ez eta udal zerbitzuen laguntza zuzenaren beharra izan dezaketen nagusien errolda eginez. Zenbat zerbitzu eskainiko ditugu; esate baterako, familia sarerik ez duten telelaguntzako erabiltzaileen **giltzak zaintzekoa**.

Azken urteotan, **nagusientzako lokalen** sare handi bat sortu dugu auzoetan, eta bizimodu aktiboa edukitzeko eta bakardade kasuak saihesteko baliabide handia dela ikusi dugu. **Elitxu-Lapizen eta Artian zentro berriak** irekitzea proposatzen dugu, eta **San Migelekoa hobetzea**, "Emigrazio Eraikina" lekualdatuz.

Bizitzako etapa orotan izaten da garrantzitsua kezkak eta ardurak izatea, eta gauza berriak ikastea. Horregatik, Irungo **esperientziaren eskola** berreskuratzea proposatzen dugu.

16.- Irun, arteen hiria

Irunen ezaugarri nagusietako bat izan da beti kulturaren munduan tradizio handia izatearena. Musika korala, musika banda edo opera dira, inolako zalantzarik gabe, gure bisita txartelik tradizional eta ezagunena, eta horregatik, benetan harro gaude. Gainera, azken urteotan, kultur eraldaketa interesgarri eta aberasgarria eragiten ari dira gaztetxoak zein joera berriak.

Carlos Blanco Aguinaga zentroak Irungo kulturaren arloko bihotz moduan izan duen arrakastaren ondoren, **CBAREN bigarren fasearekin** jarraituko dugu. Kultur ekimen berritzaile eta abangoardiakoetarako gunea izango da, arte eszenikoetarako espazioa, bai eta kontzertu areto bat ere, diziplina anitzetako ikuskizunei tokia egiteko, non sortzen ari den talentua izango den protagonista nagusia.

Bestalde, **auditorium berri** baten proiektua eguneratuko dugu, hiriko kultur bizitza aktiboari erantzuteko.

Azken urteotan, jauzi handia egin dugu gaur egungo musikaren aldeko apustuan. Orain, beraz, behin betiko jauzia egin nahi dugu, **Irun Zuzenean Jaialdiarekin**. Pop/rock jaialdia izango da, kalitatezkoa, eta gure hiria jaialdien zirkuitu nazionalan sartuko du.

Geure tradizioei ere eutsi nahi diegu, eta, horrenbestez, gure hirian historia handia duen musika koralararen aldeko apustua egiten jarraituko dugu. Horretarako, **Irungo abesbatzentzako prestakuntza programa** ibiltari bat egingo dugu, musika koralaria begirako interesa sustatzeko, bereziki, gazteen artean.

Gainera, hiriak duen zinema zaletasuna indartzen jarraitu nahi dugu; hala, **zinema klasikoko programa berriak egingo ditugu VOSEN, zinema soziala eskainiko dugu (solasaldi eta guzti), eta gazteentzako zinema tailerrak egingo ditugu.**

Irunen, kultur egitarau handi eta askotarikoa dugu, ez soilik udalak bultzatutakoa, baizik eta baita ezin konta ahala erakunde eta entitatek bultzatutakoa ere. Batzuetan, gainera, ez du oihartzun handirik izaten. Horregatik, **Kulturaren Webgunea** sortzea proposatzen dugu: erreferentziazko plataforma bateratua izango da, udalerriko kultur proiektu, egitarau, baliabide eta ekimen guztiak bilduko ditu, eta baliagarria izango da hiriko beste kultur eragile batzuen proiektu edota jarduerekin lotura izateko.

Gure aburuz, kultur mugimendu handi horrek isla eduki beharko luke **kultur espazio partekatuen** sorkuntzan, eta entseguetarako gune partekatu autokudeatuak jarriko lituzke artisten, taldeen, akademien eta bestelakoen esku.

Gainera, kultura edonora eramateak dakarren eraldaketa positiboan sinesten dugu; eta, horrenbestez, **Hiriko Arte** programa bat proposatzen dugu, narriatutako guneak/fatxadak lehengoratzeko, gazteen talentua eta giza balioak batuko dituen grafitizko horma irudi baten bitartez.

Eta kultura bazter guztietan egotea nahi dugunez, **“Liburutegi mugikorak”** programa ere proposatzen dugu, gure kaleetan irakurketa guneak izan ditzagun.

17. Irun kirolzale eta osasuntsua

Irun sasoiko dago, eta horren lekuko dugu biztanleria aktiboa duela: mugitzea eta kirola egitea gustuko duen biztanleria. Aparteko aipamena behar dute gure kirol elkarteek. Guztiek hobetzen dute gure egunerokotasuna, eta Irunen izena gure mugetatik urrun daramate. Irunez harro egoteko beste arrazoi bat dira, beraz.

Azken urteotan, inbertsio handiak egin ditugu kirol instalazioetan, eta kirola zein ohitura osasungarriak bultzatzen jarraitu nahi dugu hirian.

San Migel-Anakan beste futbol zelai bat eraikitzea proposatzen dugu, eta kirol modalitate guztiak bultzatzen jarraitzeko, **kirol kanfxa berria eraikiko dugu Arretxe-Ugalden.**

Gure kirol eskaintza ere indartu nahi dugu, eta instalazio berriagoei tokia egin. Helburu hori ardatz hartuta, **pump track zirkuitua** eraikiko dugu, kirolerako eta jolaserako espazio bat, bizikleta, skate edo patinetarako bihurguneekin, peralteekin eta gune ondulatuekin, hirian jolaserako eta kirolerako dauden guneak ugalduz. Gai Gainean proiektuaren 3. fasea izango da.

Kirola auzo guztietara eramaten jarraitu nahi dugu. Horretarako, **erabilera anitzeko pista berriak** eraikiko ditugu **Oñaurren eta Arbesen.**

Gainera, lehendik duguna indartu behar dugu. Hala, Larreaundiko pilotalekua berrituko dugu, eta **Plaiaundiko kirol instalazioak lekualdatuko** ditugu.

Gure aburuz, funtsezkoa da bizi ohitura osasungarriak sortzea, baina jakin badakigu gizonek zein emakumeek ez dutela neurri berean egiten kirola. Beraz, **kiroleko emakumeen erreferentziak ikusarazteko** ahalegina egingo dugu, hainbat jardunen bidez: elkarrizketak, sari banaketak, aitorpen publikoak, hitzaldiak, etab. Eskola kirolean emakume entrenatzaileen kopurua ugaltzeko lana egiteko asmoa ere badugu.

18. Irun, bihotzean

Badakigu hiriko kaleak eta plazak baino askoz ere gehiago dela Irun, hango enpresak eta zerbitzuak baino gehiago. Irun, batez ere, herritarrek, historiak, ondareak, gizarte balioek, aldaketarako egokitzapenak eta berritzeko eta etorkizunari ilusioz begiratzeko gogo etengabeak osatzen dute. Halaxe sentitzen dugu Irun, eta horregatik gaude hain harro hiriaz.

Hiru urteren buruan, oso gertakari garrantzitsu bat izango da Irunen: **San Martzialeko Guduaren V. Mendeurrena**. Gertakari hori zedarria izan zen gure historian, eta merezi duen bezala ospatu nahi dugu. Antolakuntza batzordearekin elkarlanean aritu gara, hiru urte barrukoa hurrengo mendeurrenera bitarte gogoan izango dugun urtea izan dadin.

Ospakizun horrekin batera, **Gazteluzarreko gazteluaren** hondakinak balioan jartzea proposatzen dugu, gure historia modernoaren oroigarri garrantzitsua baita.

Gure ustez, behar-beharrezkoa da gure hiriaren historiarentzat gune berezi bat edukitzea, eta horregatik jarraituko dugu lanean **Irungo Museoaren** bueltan. Apustutzat daukagu Ikust Alaiari irekitzea, leku maitatua eta enblematikoa baita. Gure historian eta izaeran zehar egindako ibilbidea izango da, gida berezi baten eskutik: Luis Mariano eta haren herentzia, familiak hiriaren ondareari utzitakoa.

Ilido honetan, **Mugarte** proiektua jarri nahi dugu martxan, Oteizaren eta Basterretxearen Etxea berreskuratu, eta mugaz gaindiko sorkuntzarako fabrika bihurtuz. Han bilduko dira Gaur taldeko artisten obra guztiak, bai eta eskualdeko obrak edo artisten etxebizitzaren programetakoak ere.

Eusko Jaurlaritzak da eraikinen jabea; beraz, hari eskatuko diogu **Urdanibia jauregia, errota eta burdinola** berritzeko. Gure hiriko ondare babestua da, eta ez du merezi dagoen bezala, hots, abandonatuta, edukitzea. Gure ustez, lehen mailako erakargarritasun kultural eta turistiko bihurtu liteke.

Gure iragana gogorarazteko eta ezagutarazteko lan handi honen baitan, Gerra Zibileko eta gerraosteko errepresioarekin lotutako **Memoria Historikoa** berreskuratzen ahaleginduko gara.

Ondarearekin batera, gizarte kapitala da gure hiriaren balio handienetako bat. Horregatik, **Irungo Boluntarioentzako Saria** jarri nahi dugu martxan. Ezin konta ahala elkarrekin, erakunde, kolektibo eta pertsona ari dira gure hiria hobetzeko lanean, eta horiek guztiek merezi dute eskertzea.

Bestalde, **Irungo Talentuaren Gala** bat ere jarriko dugu abian, hainbat diziplinan arrakasta lortu duten irundarrei aitortzea egiteko (artearen munduan, kirolean, gizartean, etab.). Alegia, anonimizatutako irundarren ahalegina, talentua eta merezimendua balioan jartzeko eta omentzeko gala bat izango da, merezi baitute aitortzea.

IRUN, AUZOZ AUZO

Azken urteotan, 26 milioi eurotik gora inbertitu ditugu Irun osoan: iparretik hegora eta ekialdetik mendebaldera. Horri esker, Irunen oreka dago auzoen eta erdialdearen artean. Modu bateratuan bilakatzen ari den hiria da, inolako bereizketarik egin gabe. Batere zalantzarik gabe "Auzoetarako Plana" izan da helburu hori betetzeko programa garrantzitsuenetako bat. 2015. urte amaieran onartu zen, eta 47 jardun egin dira hiriko hainbat auzotan. Beraz, Irungo gune guztietan zenbait hobekuntza egiteko aukera izan dugu. "Auzoetarako Plan" bat da, zeinak hainbat programaren bitartez (esaterako, "Alkatea auzoetan") edo aurrekontu parte hartzaileen bidez, herritarrek egindako eskaera ugariak biltzen dituen. Erdialdearen eta auzoen arteko oreka lortzeko lanean jarraituko dugu.

ANAKA

- Anakako etheen ingurua berriro urbanizatzea
- Soroxarta parkea hobetzea

ANTZARAN

- Pantaila akustikoak aldarrikatzea eta sarbideak hobetzea Plaiaundin
- L-4 handitzea, Hendaia kalearen goiko eremura iristeko

ARBES

- Erabilera anitzeko kirol pista
- Bertsolari Uztapide plazatxoa hobetzea
- Auzoaren irteera hobetzea, Juan Vollmer-etik igaro gabe
- Lurpeko aparkalekua Belartzako hegian

ARTIA

- Aparkalekua Gazteluzarren, Bienabe Artia-
ren alboan
- Lurpeko aparkalekua Belartzako hegian
- Blaiaiko pasealeku berria
- Nagusientzako zentroa

BELASKOENEA

- Ikastetxeko jolastokiko gimnasioa, ikastetxeari eta auzo osoari zerbitzua emateko
- Gabarrari plaza berriro urbanizatzea
- Auzoan aparkalekua hobetzeko neurriak zehatzen azterlana

BEHOBIA

- Lastaola Postetxea garatzea, etxebizitza publikoekin eta ekipamendu publiko berriekin
- Auzorako sarbidea hobetzea, Foru Aldundia-ri bere eskumeneko biribilgunea eraiki dezan eskatuz
- Gazteluzarreko gazteluaren hondakinak balioan jartzea
- Punttako bidegorria hobetzea

ERDIALDEA

- San Juan Plazaren inguruko kaleak berriro urbanizatzea

DUNBOA

- Poxpologile kaleko lorategiak eta inguruak berriro urbanizatzea

LAPICE

- Lapice kalea berriro urbanizatzea
- Erabilera anitzeko kirol pista Oñaurren, haurrentzako jolasen alboan
- Nagusientzako zentroa, auzoan
- Irunbus auzoaren goiko gunera eramatea (Lorategi-Hiriaren lehenengo taldea)

MEAKA

- Auzora oinez iristeko bideak hobetzea
- Auzorako ibilgailuen sarbidea hobetzea, beste zubi bat eta Blaiako bidegurutzean biribilgunea jarrita

PINAR

- Haurrentzako jolas parkea berritzea

SANTIAGO

- Junkal plazatxoa berriro urbanizatzea
- Tadeo Murgia kalea konpontzea

URDANIBIA

- Urdanibia eta Bentak arteko oinezko lotura (Euskotren)
- Eusko Jaurlaritzari Urdanibiako jauregia eta errota birgaitzeko eskaera egitea
- Ikastolarekiko eta ubidearekiko bide paraleloa, harik eta Ospitaleko biribilgunera iritsi arte

LARREAUNDI/OLABERRIA

- Larreaundi zentroa lehengoratzeta, azpiestazio elektrikoa eta garai bateko eskolaurrea zegoen tokian. Hala, haurrentzako jolasgune bat eta auzoko gazte zein nagusientzako eraikin berri bat sortuko da, beheko solairuan aparkalekua duela.
- Gain Gainean proiektuaren hirugarren fasea, tontor gaineraino iritsiz eta gotorlekua-ren hondakinak berreskuratuz
- Iñigo de Loiola kalea berriro urbanizatzea
- Berio kalea berriro urbanizatzea
- Pilotalekua konpontzea

ALDE ZAHARRA

- Junkal kalea berriro urbanizatzea, Nafarroa etorbidearen azpitik igarobidea handituz
- Santa Elena kalea berriro urbanizatzea
- Korrokoitz eta Papineako sustapen pribatuak desblokeatzea

SAN MIGEL

- Auzoko merkataritza gunea berritzen jarraitzea, Zubiaurre eta Javier Esteban Indart kaleak berriro urbanizatuz
- Ekintza gehiago San Migel-Anakan: kirol gune berri bat eta familiarentzako astialdi gune bat sortu Donostia kalearen inguruetan
- Emigrazio Eraikina birmoldatzea, auzorako gizarte espazio handi bat sortuz (tardean, nagusientzako lokal berri bat)
- Pello Bixente kalea berriro urbanizatzea

BENTAK

- Kirol kantxa Arretxe-Ugalden
- Oinezko loturak hobetzea Otatzen, Mokozerrotzen eta Aranibarren
- Bizilagun elkartearen instalazioak hobetzea (Errepublikako Eraikina)

IRUNEN ALDE BATUZ

Hiritarren indarra da Irun hobekien definitzen duten ezaugarrietako bat, eta hori dela-eta harro gaude. Hala, hauteskunde programa hau irundar ugarirekin eskuz esku egin dugu.

Berrogeita hamarretik gora gizarte, bizilagun, kultur eta kirol erakunderekin bildu gara, eta proposamen ugari jaso ditugu. Asko hitz egin dugu Iruni buruz, eta hiria hobetzeko moduari buruz.

Gainera, **Irunerako ideiak** ekimena gauzatu dugu, herritarren zuzeneko parte hartzea bilatuz eta gehien bozkatutako ekimenak gure hauteskunde programan txertatzeko konpromisoa hartuz. Ekimen honekin, 7 auzotan ibili gara, webgunearen bidez 125 proposamen jaso ditugu, eta 1.550 boto jaso ditugu, txertatu beharrekoak aukeratzeko. Hauek dira aukeratutakoak, eta, beraz, dagoeneko programan gehitu ditugunak:

1. **Pump track zirkuitua edo pista**
2. **Liburutegia handitzea (CBA)**
3. **Liburutegi mugikorak**
4. **Bizikletentzako garbitokiak**
5. **Aire libreko kirol instalazioak auzoetan**
6. **Aire libreko kirol pista Oñaurren**
7. **Behobia-Azken Portu pasealekuaren bigarren fasea**
8. **Zinema klasikoa jatorrizko bertsioan**
9. **Zinema soziala solasaldiarekin**
10. **Esperientziaren eskola ezartzea**
11. **Zinema tailerra gazteentzat**
12. **Gain Gainean parkea zabaltzea**
13. **Gizarte zentro gehiago nagusientzat**
14. **Hirugarren anbulatorioa**
15. **A-8ko ordainsariaren doakotasuna Bentak eta Behobia artean**

Aktiboki entzuten aritzeari eta parte hartzeari esker, hemen aurkeztera gatozen gure hiri proiektua aberastea lortu dugu. Eskerrik asko.

Alkate ona, talde bikaina

JOSÉ
ANTONIO
SANTANO
ALKATEA / ALCALDE